



Batikano'ko izparak.

Ofi'la'ren 31'n Pio XI'n Agurgariak 75 urte bete ditu. Adin ori geyenentzat lanak alde batera itxiteko izan oi da, Aita Santuentzat osteria, geyen egitekoa, geyenez. Batez be gaur daukogun Aita Santuak, daukan adiñegaz, eten barik lan egin eta ekiteko gogoagertzen dau. Amar urtean egun bat gexorik egon danik ezin geinke esan, eta etenbako buru austeak, lanak eta zeregiñetan murgilduta lez bizi afen, kementsu, txairo, eta *L'Osservatore Romano*'k esan dabenez, a'ra'noen antzera gastetasuna bariztau egiten yakola esan leike. Yaungoikoaren berarizko laguntza barik ain osasun ona eukitea ez da ezez azaltzen, eta edestian izan dan Aita Santue'tatik aundienetariako onek alde gustietatik zorianak emoten artu dituan ufutidatzakaz batean «EKIN»ek biotzez diñotso: *Ad multos annos!*

Malta auzia amaitu da.

Oin urte bi, Malta'ko yaurleri lord Strickand'en bidebagekeriak zirala-ta, auzi latza katoliko ta agintarien artean sortu zan. Aita Santua'k auzi ori aztertzeke bere ordelaria bialdu bear izan eban, baña gustiak ostikopetu gura zituan Strickland'en maltzurkeri ta gaiztakeriakaz gauza onik ezin egin izan eben. Gotzaiñen aurka itz astunak esan zitualako, eleiz lege zigortu eben. Oin, baña, nonbait argiak yota, bere oke'ra autoritu ta idazki bat argitaldu dau, Eleizaren kaltezo okefak autoritu ta tamala agertzen. Ederto egiñ! Ordez Gotzaiñak bere gain euken zigofa yaso dautse. Eleizaren kaltez yaikiten diranak goiz edo belu burua makurtu bear.

Jesus'en Biotza'ren eguna.

Aita Santua'ren, eta gure Gotzain agurgariaren deyari erantzunda, Jesus'en Biotza'ren eguna iñoz baño eraspén geyagoz alde gustietan ospatu da. Eleizkizun zoragariak, benetasuna ta egizko eraspénak irabazi, ta asko atan be, egin dabela esan geinke. Maitasu ofen agerkai alde gustietan etxe-apaingariak iñoz baño ugariago. Jesus'en agintza efiaren biotzetik yaurtiteko alegindu diranak, zaletasun ori biztu eragiteko bide izan dira, eta olan ba'goaz, gure etsaye' eskerak emon beafik euki ez afen be, zorioneko yasarpén izan dala, esan al izango dogu. Ia ba ofaño eltzen garean!

Yakitunen batzafa Friburgo'n.

Friburgo'ko Katoliko Ikastetxe Nagosiak eta Latefi arteko Katoliko-Ikaskuntza-Batzak eralduta, boltxebitafen irakatsi asmo ta egiteatzaz, batzar ga'antzitsuak egin ditue. Gaur, Aita Santua'k azkenengo Idazki'an diñonez, etsairik andienetariako «komunismo» da, ta ondo ezagutzeko alegiñak egitea egoki datofela edonok dakuske. Reynold, Bazkun onen lendakariak gayak di-

ran lez aurkeztu ta yakidi-arauz azaldu bear dirala esan eban. Guriau yaunak, zek ekafi ta zelan boltxebismoa etofi zan azaldu eban. Devauid irakasleak, umeak gurasoai kendu ta latefiak zelan menduten (?) zituan. Eikola Tinechef Paris'go irakasleak E'fusiako legedia izatez zer dan eta egitez aintzat ez dala artzen esan eban, an agintari bakar bat 165 miloi yopu lez menpean dituana bakari dagola; len Lenin eta orain Stalin. Gero beste itzaldi batsuk erusitar elerti eta boltxebitafen pilosopietzaz egin zitezuan, ikasbideok zabaltzeko erabagia artuaz. Izan be gaur gauzak ondo adiraldu ta yokatu bear da, gaur ez da ba, naikoa, oldostuteko (pentsatzeko) bizitea, biziteko oldostu beafean aurkitzen gara.

Friburgo'ko Katolikotar Ikastetxe Nagusian, igaro dan ikastaroan 679 ikasle izan dira eta entzule 73. Teoloji ikasle 289, legedikoak 104; elerti-gayetan 147; yakidietan 139. Oneitatiek 384 suizatafak, erbestekoak 295. Pantzetafak 67; alemandafak 57; Later-Batza, Ipar Amerikafak 49; Italitafak 20; ingalandafak 15; olandafak 12; irlandafak 11; Yugoelabitarak 9; polonitarak 12; espanafak 8; austriatarak 7; ungaritarak 6; beljikiak 5; txiñafak 4; kanadatarak 3; erumanitarak 3; txekoeslabitarak 3; Yaponafak 2; luxenburgotafak 1; Kolonbiatar bat, lituaniatar bat, brasildar bat, venezuelatar bat eta bulgariatar bat. Egiz katolikotar edo orokofa dala esan geinke.

Padua'tar Andoni Deunaren aintzaz.

Berebiziko yayak egiten diardue, Padua'n Andoni Deuna Deun ifagafi ebela aurten saspireun urte betetan diralako. 1231'n urtean il zan, (Bagi'la'ren 13'n) eta 1232'ko Ofi'la'ren 28'n Deun iragafi eben. Urtea baño lenago. Iges, bere eriotzaren saspireun-gafen urtea zala, alde gustietan yai aundiak egin ziran eta Padua'n be berarizkoak gertau ziran, baña, Katoliko Ekintzan aurka «fazistak» egin zituezan bidebagekeriak zirala-ta, Aita Santua'ren ordelaria ez zan yoan. Aurten bakeak eginda, Eleizako buru ta agintariak alkarfen leyan diardue Deuna goraltzen. Aita Santua'k Lega kardenal agurgafia Bere Ordeko ofeitarako izentau dau eta berarizko bultzian Batikano'ko geldokitik ilar. n 29'n urten eban. Agintari ta efiak are'rarik ikusgafiena egin dautsoe, jGora Aita Santual alde gustietan entzuten zalarik. Ilaren 30'n Deunaren eleizan yaupa nagosi bat izan da, ta Lega kardenala, 25 Gotzain inguruan dituala, bertaratu da. Ravello'n sei abotseko yaupa abestu dabe, eta Ordalariak itzaldi bikaña irakuri dau deunaren gorlabenez.

XIII'n Leon Doipuruak, Andoni Deuna «Ludi gustiko deuna dala» diño, baña batez be Eusko-efi guztian toki gitxiten lez maite da-

Euskal-erriko izparak

Mañari.

Elizkixunak.

Igandian, Otoitz - Bialguntza'kuak (Apostoladukuak), Josu'ren Biotz gozoaren aintzaz, urteko jairik andijena ospatu gendun. Goxian, Jaunartze asko; ta afatsaldian be, gure Jauna agirian zala, elizkixun edefa ibildeuna «prosesiño» ta guztikua egin zan. Eta afatsaldeko elizkixunian, txauburu jaunak, Bialguntzatzaz, berbaldi edefa egin euskun. Aintza Bijotz deuna'ril

Juan-etori.

Santurtze'tik etofi ziran Bartzena'tar Agapita ta Kapanaga'tar Bitor bere emazte ta umiakaz. Emen egun batzuk igaro ta, Galdakano'ra juan zan, Efekalde'tar Josune neskatila.

Bederatziufena.

Andoni deunaren bederatziufena, emeko Kurutze-Santu elizatzuan, larunbatian asi zan. Iluntzietan egiten da, ta jente asko erduten da. Deun emolia, askoren gogoko.

Igalija.

Aurtengo urtia, igali-urte kaskafa ixango dogula uste dogu. Kerixa zuzatzak beintzat, igaz aña garaun eztabe. (Emen bariz auxe tamalgafi-jena) Ta maluki, makatz, sagar eta enparau igalijetan be, ugaritasunik eztoxi xango, jTamala! Gitxiago jan biar...

¿Nungoak ete ziran?

Lengo astian, iru edo lau mutil kankalu (polafia ta kapeladunak eurreik) Mugaña alderantza juan ziran. Berbia, zaratia ta zafapafia ugeri eruan eben. Eta entzun dogunez, edozelako mendigoxaliak be etziran ixan. Mugaña-galufera aufe-aldetik igoten asi ei-ziran eta. jOiakorik! jEz ete ekijien ba, leku aretatik gora igoteko, burdiñazko zapatak eta txartes gofijak soñian biar ixaten dirala? jKokolos!

Urkiola'ra.

Andoni deuneez, ta aufegunian (aurten igandez dalako) jente asko be asko juango dan ustia dago. Egun ofeitan, amaikatxu modutako jentia ikusiko dogu efi ofetan, gorantza ta berantza doiazala...

Paraon'en ondorengiak be, beti lez, zintzo agertuko dira; ainbeste jenteren artian «negosijo» edefen bat egin al-badabe edo... Oneik begijak, belafijak eta batez-be ezkubak... bizkor erabiliko dabez. Dagoan lekutik gauzia ataraten eztira mutil txafak be ta. Guztijentzat perija txafik ezta ixango...

MAÑARIKO

JANTZIAK

gizonentzako Teadoron-
nian egingotzue iñun
beizen ondo eta lauko
asko kendubarik.

TOVALINA Y C.ª L. D.

SOMERA TT

BILBAO

Lenengo oñian
sariukeria dendaik.

be. Or daukogu Urkiola ziñaldari. Esaten danez, eri au ikertu ebalako, eta bere amama Abiña, Suka-rietakoa zalako ete da? Ori edestiz egiztu ezin ba'leike be, zer edo zer ba'da, ain maite Deun ori izateko. Saspireun-gafen urtea dalata, gauza txukun, eta atsegingariak, «Zeruko Argia»ren il onetako zenbaki berezian ikusi zeinkez, irakurle.

M'tar G.

Bilbao'tik.

Agur: Aspaldijon egon naz asteroko onetan zeo-zer idazteko goguzagaz, baña emen Bilbo aldian ainbat idazle on dagozan lez, euretaikoen bat agertuko dan itxaropenak bildur-tuten ixan nabe, baña eurek ixilik dagozan artian, emakume baten luma txirua jatortzue, irakurliak, geure efi-jaren ixena bestien artian agertu daiten. Idazkitxu onen bitartez zuzendari jaunari izpartxu onek argitalduteko tokitxu baten ezkabidia egiten dautsat eta danakaitik artu bediz esker ugarijak aufez. (1)

EKIN.

Otsala'ko igande afatsalde bat ixan zan nire eskuetara EKIN asterokoaren lenengo zenbakija eldu zana. Gogotsu eta poz-pozik irakufi neban bera, eta ain atsegin ixan yatan, ordutik ona astero irakurten dot eta geruago ta pozago. jEta zelan ez Uzku'rtza eta euzko-oiura garbi guztijen alde lan egiten daben izparingija? Baña ori bakari ez da ni pozutzen nabena; ba beste izparingij batzuk be bada-goz gauza ofen alde lan egiten dabenak, baña EKIN'ek lez euzkera utz-utzian batek bere ez; alan ba euzkeriaren alde lan egin gura badogu, emen daukagu gure asterokua, baña ez bakari geuk irakurteko, egiten ez dabenari be irakufi eragiteko, geure izkuntza edefagaz aztu ez daitzean be.

Bokarta (antxobia) ugari.

Aspalditxuan egunero ainbat itxas-ontzi dotoz geure ibaira eta guztijak bokarta dakarde. Ixan dira egunak amabi ontziraño zenbatu dodazanak, eta euretatik geyenak bermeotafak dira. Askatozozan lez, añañak sa-neufi txikija egiten dautse; ba lengo egun baten euren artian sortuten diran ezta-baidak ikustiagafik, bertaratu nintzan, eta laurleko bijen emoten eben «afobia» eta pozik alan be saltzen ebenian. jIkustekua benetan ixaten da afantzalian eta erosle edo «sardiñeran» artien urtetan daben «zaltzia»! Batak onenbete dala, besteak arenbeste, ta azkenian saneufija erabagiten dabenian jan ixaten dira didafak eta drogak! Onek Bilbo'ko «sardiñerok» okefak dira ixan bel Eskefak afantzaliak ondo oitute dagozana euren artian ibiltzen, oztin... burutik be eraingo leuskijuel!

Larunbatan (uste dot egun ofetan ixan-zala) «Sabin-Etxia» ixena daudon ontzija be emen egon zan eta, «Euzkadi» izparingijan zeo-zer bere-tzaz irakufi ixan dodan lez, (afain asko atrapetan dabela edo), pozik begiratu neutsan eta pozago berak agertuten dituzan ikufiñak ikusi nebazanian, eta berari lez beste ontzi batzueri be. Ia ba afantzaliak ekafi-ekafi añaña ugari, ba zuentzako ona ba'da, gutzako be alan ixango da-ta; ba Bilbao'n «efil» bategafik erun ala beste «antxoba» emoten dabe.

jOri da egin biar dana!

Lengo baten Bilbao'tik Deusto'ra dabilan tximist-burdijan giñoizala geure aurian jayan neskatila batek, kurutze andi bat papafetik eskegita eukan, siñismen edefa lotsa barik agertuten ebala.

Bere onduan egon mutil gazte «gofi» antzeko batek laster «susmau» eutsan-ta, ikusi ta bat-batera zertarako daroyan ain kurutza andija esan eutsan:

Neskatilia, itz onek entzun afen etzan asko ikaratu, ba abe andijagaz erantzun eutsan: jzettabe ba kurutziak kanpora, esaten? jba kanpua daruat! Au entzun ta aurian egun «gofi» ori, berba barik geratu zan. jEmen daukagu erakutsi edefa, ba,

neskatilak!

Lafegi luzetu ete nazan bildura daukot eta ufengorarte.

«ANE-MIREN»

(1) Baita pozik atan be itxiko dautzugu ta kitxo bat nai dozun gustian. Nundik eta Bilbao'tik etofi euskera txukun eta garbia dariozula ta Bilbo'ri atiak itxi? Orixe ez. jAi Bilbo, Bilbo, euskaldun egingo bazina! Aspaldijon daukat ames bat eta gurari bat: Arenale'ko zubi-musturian ordu betian egon «tente» ta andik igaroten diranai euskera baño ez entzutia. Ofetarako, zabaldu EKIN eta ekin euskereari. Zuko emakumiok asko egin zeinkie.

Eleiz - jantzi ta urregintza A. Rui-Wamba

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Urutizkina 14.238
BILBAO

Erigoiti.

Jesusen Biotzaren yayak.

Otoi-Bialguntzakoak egin dabe Jesusen Biotzaren bederatziufuna ta azkenengo iru egunak itzaldiekaz. Jesusen Biotz-eguna yai egin zan un onetan eta goizean Jaun artze andia izan zan, abesti politikakaz; gero beluko meza edefa mutilak guztiz ondo abeztuta, elezea argiz eta loraz yantzita egoala.

Meza ostean ipiñi zan Gure Jauna agirian eta egon zan afatsaldeko eleizkizuna amaitu artean, eta bera yagoten egon ziran aldizka Gazte Eukarizti-Zaleak. Eskefak emon bear deutseguz elezea ain ederto yantzi eben neskatilai.

Misio-eguna.

Lengo domekan euki gendun Misio eguna eta au dala-ta, gente asko ikusi gendun elezan bai goxean Jauna artzen eta batez be afatsaldean. Itzaldiak egiten etofi zan Gastelu-Elexabetiko Abadegei-Etxeko irakaste dan Elias.

Lasuen jauna.

Misio gauzetan berantza egin dogu ta ia ba bariek sartute eltzen bagara lengo maiara.

Yayoak.

Angel, Txabolako'ak izan dau seme bat. Zorionak.

S.

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, baie-bizarak, zumitz
ugaf-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekaie, 50 **BILBAO**

Meñaka.

Jaungoikoaren ordezeko bat, Josukistoren oñordesko bat, Jaupari bari bat geyago dogu emen, Irutasun gustiz deunaren egunian lenengoz, gure ertxadoneko ondian Jaupa egin ebana, emeko seme ta gure adizkide bafu-baruko dan Oleaga eta Abarot'tar Toma. Poz andiko eguna izan dogu emen Mesa bafi eguna. Aita Goikoetxea Josuren Lagundiko begundari gartsuak argiro erakutsi dasku Jauparijak dirala Jaungoikoak, Josukisto gure Jaunak bere ordeskotzak autuak eta guri zerura bidian argi ta lagun dagiguen berak bialduak.

Eskubide andi ta onuratsuakaz jatorkuz ba Josukistoren ordezeko diran Jauparijak eta alan zorijon agufa dautsegu bijotz biotzez efi onen goragafiz dan gure Jaupari bafiari, bere guraso kistar zintzoari, bere aitia-amamari, anai areba, bere aita amabitxi Solano'tar Agustin eta Etxe-bafia'tar Gotsone senar-emastiai ta bere sendi gustiari.

Ardura andiz batu giñan algenduan efitar gustiok, eta ainbat albo efitat be bai, ondo apainduta egoan gure ertxadonan Irutasun eguneko Mesa